



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

PRENTSA OHARRA

Batzar Nagusiak Edesako beharginen "martxa urdinaren" alde

Bilbon, 2013ko abenduaren 3an

Bizkaiko Batzar Nagusiek euren laguntza eta alkartasuna erakutsi deutseez Arrasaterainoko "martxa urdina" hasi daben Edesa enpresako beharginei. Martxaren helburua lanpostuak errebindiketea eta Fagor Electrodomésticos taldeak Basaurin daukan lantegiaren industria jarduerari eustea da. Laguntza erakustaldi hori Jose Luis Bilbao Aldun Nagusiaren agerraldian emon da. Aldun Nagusia Socialistas Vascos (PSE-EE) taldeak eskatuta joan da Batzarretara, Edesak, salbetako hiru milioi euroko abala jasotea ezinezko bilakatu daben errazoiak azaltzeko. Aldundiko arduradun nagusiak batzarretako taldeetako bozeroaleekin bat egin dau, behargin horreei bere "alkartasuna eta laguntzea" erakusteko eta Aldundiak, Basauriko lantegia itxieratik salbetako egin eban alkarlanerako eskaintzeak "mahai ganean jarraitzen dauela" baieztzeko.

Aldundiko arduradun nagusiak, agerraldi luzean, kooperatibaren arduradunek Fagor Electrodomésticos taldearen likidazioa iragarri ebenetik Aldundiak emon dituan pausuak azaldu ditu. Pausu horreen artean, Bizkaiko Aldundiak Edesari eskinitako 3 milioi euroko abala azpimarratu behar da. Laguntza hori ez zan gauzatu, Fagorreko Zuzendaritza Kontseiluak laguntzari ezetz esatea erabagi ebalako. Jarrera hori oso "kolpe gogorra" izan zan, Bilbaoren berbetan, enpresa itxierara eroaten ebalako, eta guk "ez gendualako horretarako errazoi objektiborik aurkitzen".

Bilbaok adierazo dauenez, oraindino lortu daiteke Edesak bere produkzioagaz jarraitzea, eta Aldundiak beharrian jarraitzen dau, orain hilebete, abala emoteko proposamena egin zanean, planteau ziranen "oso desbardinak izango ez diran" soluzinoen bitartez. "Edesa gaia ez da bukatu". "Beharrian jarraituko dogu", urtenbidea aurkitzeko eta mahai ganean "beharrezkoak diran neurriak" jarteko, esan dau.

Oposizinoak taldeek esan dabe Aldundiak, emondako pausuei buruzko informazioa emon ebalako, eta onartu dabe Aldundiak borondate ona erakutsi dauela Edesaren arazoaren aurrean, baina, Fagorreko zuzendaritza taldeko kideek ezetza emon baino 48 ordu lehenago Aldundiak Bizkaiko lantegia salbetako planteau eban soluzino iragarkiak beharginen artean sortu eban larregizko ilusinoak kritikatu dabe. "Ez da diskrezinorik egon", adierazo dau Iñaki Egaña bozeroale sozialistak, eta beharginen aurrean hori iragarteko "beharrezkoak ziran zorroztasun eta dokumentazio barik" jardun ebalako aurpegiatu deutso Aldun Nagusiari.

Ildo berean, Esther Martínez PP-ko bozeroaleak, Aldundiak "itxaropen faltsoak" sortu ebazala Edesako beharginen artean adierazo dau. Aldun Nagusiaren "exhibizionismo jarduketea" eta "beroaldia" salatu ditu. Ordezkarri popularrak eskaerea egin deutso Bilbaori, "gitxienez" parkamena eskatu daian, bere eretziz "beste garai batzuetako "eszenifikazioa" izan dalako.

EH Bilduko Andoni Gezuragak eskertu egin dau Aldundiak enpresea salbetako egin dauen esfortzua, eta gai horretan inpliketako orduan bere taldearen laguntzea izango dauela adierazo dau. Aldi berean, Bizkaiko enpresen finantziarioa hobetzeko arauak bultzatzea eskatu dau.



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

Hori baino lehenago, bere aurretik berba egin daben beste taldeen moduan, “arduradun politiko batzuen” jarrera “populisteak” kritikatu dau. Eskaerea egin deutso Bilbaori, etorkizunean “diskrezinoagaz” lan egin daian.

EAJ-PNV taldeak Batzarretan daukan bozeroaleak, Lorea Bilbaok, bere aldetik, Aldundiak arduraz jokatu dauela adierazo dau. “Erabagiak hartu ditu, baina ez beroaldiaren ondorioz, oinarri sendoetan oinarrituz baino”, esan dau. Batzarkide jeltzaleak eskaerea egin deutse generako taldeei, Aldundiaren jardunean “atxakiak edo akatsak” bilatu ez daiezan, eta esfortzuak, “gure laguntzea eta alkartasuna” behar daben beharginengan zentrau daiezan. Aldundiak, “mahai ganean konponbiderako bidea jarteko” egin dauen iragarkia azpimarratu dau. “Akatsa egin dauena ez da Aldundia izan, Fagor baino”, erantzun dau.

ATE IREKIKO JARDUNALDIA BARRIAN

Saio berean, batzarretako taldeek aho batez onartu dabe Bizkaiko Talde Popularrak (PP) aurkeztutako proposamena. Proposamen horren bitartez eskaerea egiten jako Aldundiari, Bilboko Athletic Club taldeari eskaerea egin deion, halan gura daben herritar guztiek San Mameseko zelai barria bisitetako “ate irekiko jardunaldia” martxan jarri daian. Taldeen eretziz, inbertsino publikoagaz egindako zelaia, kasu honetan gertatzen dan moduan, egun batean zabaldu egin behar da, herritar “guztiek” “tenplu” zurigorri barria ezagutzeko aukera euki daien.

IZEN ALDAKETEAK SOPELAKO UDALERRIARENTZAT

Batzordeak, Sopelako Udalaren osoko bilkurak hartutako akordioari buruzko eretzia be emon dau. Akordio horren bitartez, udalerriak, modu ofizialean “Sopela” izena hartzeko egin beharreko izapideak hastea erabagi eban. Aldundiak, Bizkaiko Lurralde Mugaketei buruz emondako foru arauagaz bat etorritz, prestau dauen aldeko erespene EAJ-PNV eta EH Bildu taldeen aldeko botoagaz eta PSE-EE eta PP taldeen abstentzinoagaz onartu da. Osoko bilkurak emon beharko deutso behin betiko balioa izen aldaketeari. PP taldea izan da zalantzak erakutsi dituan talde bakarra, bere eretziz “Sopelana” antxinako euskera dalako. “Akatsa” da, herri horrek izen hori eukalako orain dala “mila eta bostehun urtetik”, esan dau Arturo Aldecoak (PP).



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

NOTA DE PRENSA

Las Juntas Generales apoyan la "martxa azul" de los trabajadores de Edesa

Bilbao, a 3 de diciembre de 2013

Las Juntas Generales de Bizkaia han mostrado hoy su apoyo y solidaridad con los trabajadores de la empresa Edesa quienes han iniciado la "martxa azul" hasta Arrasate en reivindicación de sus puestos de trabajo y del mantenimiento de la actividad industrial de la planta que el grupo Fagor Electrodomésticos tiene en Basauri. Esta muestra de apoyo se ha producido en la comparecencia del Diputado General, José Luis Bilbao, que acudía a la Comisión Intstitucional, a petición del grupo Socialistas Vascos (PSE-EE), para explicar las razones que han impedido que Edesa disponga de un aval de tres millones de euros para su salvación. El máximo responsable de la Diputación se ha unido a los portavoces de los grupos junteros para mostrar su "solidaridad y apoyo" a estos trabajadores y para confirmar que la oferta de colaboración de la Diputación para salvar la planta de Basauri del cierre "sigue estando encima de la mesa".

El máximo responsable del gobierno foral ha explicado, en una larga comparecencia, los pasos dados por la Diputación desde que los responsables de la cooperativa anunciaron la liquidación del grupo Fagor. Entre ellos, destaca el aval de 3 millones de euros que el ejecutivo vizcaíno había ofrecido a Edesa para permitir que su matriz sacara del concurso de acreedores a la planta vizcaína, hecho que finalmente no llegó a materializarse ya que el Consejo Rector de Fagor, decidió dar la espalda a esta ayuda. Esta postura fue un "mazazo muy duro", según Bilbao, una decisión que abocaba a la empresa a un cierre al que "no encontrábamos razones objetivas".

Bilbao ha sostenido que todavía se puede conseguir que Edesa continúe su producción y que la Diputación trabaja para ello con soluciones que "no serán muy diferentes de las planteadas" hace un mes con la concesión de este aval. "El asunto de Edesa no ha terminado". "Seguiremos trabajando" para articular una vía de salida y poner encima de la mesa las "medidas necesarias", ha dicho.

Los grupos junteros de la oposición, tras coincidir que la Diputación les mantuvo informados de los pasos dados y tras expresar la buena voluntad del Ejecutivo con respecto a Edesa, han reprochado, sin embargo, la excesiva ilusión que generó entre los trabajadores el anuncio de solución que planteó la Diputación para la planta vizcaína, 48 horas antes de que los directivos de Fagor dieran marcha atrás. "No ha habido discreción", ha afirmado el portavoz socialista Iñaki Egaña, quien ha echado en cara al Diputado General que actuara "sin la rigurosidad y documentación necesaria" para hacer ese anuncio ante los trabajadores.

En esta línea, la portavoz del PP, Esther Martínez, ha señalado que la Diputación creó "falsas expectativas" a los trabajadores de Edesa. Ha denunciado la "labor exhibicionista" y el "calentón" del Diputado General. La representante popular ha pedido a Bilbao que "al menos" se excuse por lo que considera una "escenificación de tiempos pasados".



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

Andoni Gezuraga, de EH Bildu, ha agradecido el esfuerzo de la Diputación por salvar la empresa y ha mostrado el apoyo de su grupo por implicarse en este asunto, al tiempo que pedía impulsar normas para mejorar la financiación de las empresas vizcaínas. Antes, ha criticado como otros grupos que le precedían, la actuación “populista” de “algunos responsables públicos”. Ha pedido a Bilbao que en el futuro trabaje con “discreción”.

Por su parte, la portavoz del PNV en las Juntas, Lorea Bilbao, ha señalado que la Diputación ha actuado con responsabilidad. “Ha adoptado decisiones, no por un calentón, sino con unas bases firmes”, ha dicho. La apoderada jeltzale ha pedido al resto de grupos que no busquen “excusas o errores” en la actuación foral, y que centren los esfuerzos en los trabajadores que necesitan de “nuestro apoyo y solidaridad”. Ha destacado el anuncio de la Diputación por “poner sobre la mesa una vía de solución”. “Quien ha fallado no ha sido la Diputación, ha sido Fagor”, ha respondido.

JORNADAS DE PUERTAS ABIERTAS PARA SAN MAMES BARRIA

En la misma sesión, los grupo junteros han aprobado por unanimidad una propuesta presentada por el grupo Popular Vizcaíno (PP) para que la Diputación inste al Athletic Club de Bilbao a poner en marcha “jornadas de puertas abiertas” que permitan a todos los ciudadanos que lo deseen visitar el nuevo campo de San Mamés. Los grupos entienden que un estadio realizado con inversión pública, como es el caso, debe ser abierto en alguna ocasión para que “todos” los ciudadanos puedan conocer las interioridades del nuevo "templo" rojiblanco.

CAMBIO DE DENOMINACIÓN DEL MUNICIPIO DE SOPELANA

La Comisión se ha expresado también sobre el acuerdo adoptado por el pleno del ayuntamiento de Sopelana por el que este municipio decidía iniciar los trámites para pasar a denominarse oficialmente “Sopela”. El dictamen favorable elaborado por la Diputación, conforme a la norma foral sobre Demarcaciones Territoriales de Bizkaia, ha sido aprobado con el voto favorable de PNV y EH Bildu, y la abstención de PSE-EE y PP. Un pleno tendrá que dar validez definitiva al cambio de nombre. El PP ha mostrado dudas, ya que entiende que el término “Sopelana” es ya euskera antiguo. Para el apoderado del PP Arturo Aldecoa, la decisión del ayuntamiento Uribe Kosta es un “error”, ya que esta población se llama así desde hace “milenio y medio”. La petición del consistorio llega avalada por un informe de Euskaltzaindia.